

noaua

**359 langabetu,
urriko kopurua Usurbilen**

**Udal aurrekontuak
lantzeko bilera irekiak
egingo dira egunotan**

**Larunbatean, Udarregi
bertso sariketako finala**

BRIKOLAJEA - ERREMINTA

ETXEKO TRESNAK - PINTURA

“Beñat Lizaso:


**“Mugarik ez dago ezertarako,
norberak jartzen ditu bere mugak”**

ASTERO DESKONTU
EZBERDINAK
AURKITUKO DITUZU!



KALE NAGUSIA 10 BEHEA, USURBIL

Auto Guria



Auto Konponketa

Pre I.T.V.

Marka guztiak

Osinalde, 9 • USURBIL (Gipuzkoa)
☎ 943 363 298 • Faxe: 943 363 862


baratze.
produktu ekologikoak

Gure osasunaren eta ingurumenaren onerako

GABON HAUETAN OPARITU OSASUNA!

Produktu ekologikoez osatutako saskiak
prestatzen ditugu,
zatoz eta informa zaitez!

Tel. 669 344 176 - Kale Nagusia 10, Usurbil



Albiste iruditan

Onddo faltarik ez Andatzan

Ez dago urrutira joan beharrik, onddo ederak aurkitzeko. Ikusi bestela, ondoko irudikoa. Jose Sanchez Moreno herritarrak bildutakoa da, joan den azaroaren 7an, Andatzan bertan. 700 gramo pisatzen ditu. Eskuratutakoa erakutsi zigun egoitzara etorrira, eta ondoko argazkian erretratatuak geratu dira, onddoa eta onddoaren jabea. Halere, ez da halako piezarik aurkitu duen perretxiko zale bakarra. Duela aste gutxi, Enrike Lopetegi usurbildarrak 92 zentimetrotako txapela zuen onddoa aurkitu zuen pinudi batean. Hau ere, Andatza inguruetan.



Jose Sanchezek aurreko astean topatu zuen 700 gramoko onddo hau.

Laburrean

Azaroaren 17an hasiko da autodefentsa tailerra

Azaroaren 17an hasi eta abenduaren 1era arte burutuko da Autodefentsa Feminista tailerra. Izen emateak irekita jarraitzen du: 943 377 110 telefonora deituz edo email bat idatziz: parekidetasuna@usurbil.net

“Hondakin – Ongizate +” erakusketa Sutegin

Larunbat honetan hasiko da Hondakinen Prebentziorako Astea. Honen harira antolatuta da “Hondakin – Ongizate +” izeneko erakusketa. Igande honetan inauguratuko da, goizeko 10:00etan. Asteazken zehar, bisita orduak: 18:00-20:00.

Azaroan goizez irekiko da KzGunea

Ikastaroak egiteko aukera eskaintzeaz gain, IT Txartela ziurtagiria eskuratzeko aukera dago. Eta komunitate birtualak programaren bidez, web orria sortzeko aukera. Azaroan KzGunea goizez egongo da zabalik: 9:00-13:00.

noqua

Kultur Elkartea
Bordaberi, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 /// elkartea@noaua.com /// www.noaua.com
Jendaurreko orduetgia: 10:00-14:00 / 16:00-19:00 astegunetan



Usurbilgo Udala



Itxial preboak



Itxial Herrira?

Elkarteko lehendakaria:


Ana Aizpurua.
Aldizkariko koordinatzailea:
Imanol Ubeda.
Idazkaria: Aizpea Aizpurua.
Publizitatea: Arantxa Zulaika,
publizitatea@noaua.com.
Diseinu berria: Erroitx S. L.

Erredakzio kontseilua,

erredakzioa@noaua.com:
Imanol Ubeda, Aritz Gorriti,
Aizpea Aizpurua.
Banaketa: Aloña Esnaola,
Olatz Rezola, Iratxe Begiristain.
Laguntzaileak: Lontxo Zubiria,
Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria
Jesus Urbieto, Maddi Galbete,
Ana Urdangarin, Maddi Zaldua,
Iñaki Larrañaga, Pako Agudo,
Jon Etxabe, Alazne Begiristain,
Denis Elortza, Pello Aranburu,
Xabier Aranburu, Inma Balda,
Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi,

Maialen Unanue, Ugaitz Agirre,
Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia
Torregarai eta Udarregi ikastola.
Tirada: 2.800 ale.
Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.
Inprimategia: Antza. Zirkuitu
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Aritz Gorriti

Halakorik, gertu bai?

Urteak daramatza zabalik, baina Euskal Herriko musika taldeak protagonista zituen lehen jaialdia izan da honakoa. Barakaldoko BEC-eko Becatu festibalari buruz ari naitaizue. Joan den larunbatean ospatu zen, besteak beste, Zea Mays, Berri Txarrak edota Zuloak taldekoen kontzertuekin. Horma haien barruko jai zurrunbilan, izan zen handik kanpo, handik gertu, 24 ordu lehenago jazo zena oroitzeko tarterik ere.

Hedabideetan izan duen oihartzunagatik, jakina da orain aste-bete, emakume batek bere buruaz beste egin zuela Barakaldon, etxetik botatzera zihoazenean. Ezin

imajinatu, halako erabaki bat hartzeko zer bizi behar izan zuen. Zoritxarrez muturreko erabaki bat hartu duen bakarria ez da halere. Eta nork daki, egoera ikusita, azkena izango ote den.

Atentzioa deitu dit, honen aurrean izan diren erreakzioek. Hainbat banketxek bat batean, etxe kaleratzeak geldiaraztea erabaki dute. Albistea ezagutzera behintzat, emakume honen heriotza gertatu eta 24 ordura eman dute. 24, 48 ordu, bi edo lau hila-bete lehenago itxura denez, erabaki bera har zezaketenean. Baina badirudi ezetz, orduan nonbait ez zen herritar askoren egoera behar bezain larria. Agian oker

ibiliko naiz, baina itxura guztien arabera orain bai, emakume batek bere burua balkoitik behera botatzera erabaki duenean. Ongi dago, neurriak har ditzatela. Baina benetakoak, eraginkorrak, eta ez halako kasuen aurrean izaten diren salaketa hotsak isiltzen direnean, gauzak lehen zeuden bezala uzteko.

Estatu espainiarreko gobernua "muturreko kasuetarako" etxe kaleratzeak saihesteko saiakeran ere ikusten ari gara. Indarrean dagoen legedia beti betetzearen aldeko agertu zaigun gehiengo absolutudun alderdia, murrizketen aldeko hori, bankuei ez dakit zenbateko dirutza sartzen aritu

den hori, dekretu bidez, presaka dabil orain, gainean lehertu zaion egoera konpondu nahian. Hildakoek, denok mutu uzten baikaituzte. Bukatzeko, bizilagunen erreakzioak ere nabarmendu nahi nituzke. Zoritxarrez ohikoa denez, inork ez zekien emakume hau zer egoera bizitzen ari zen.

Isiltasunean, kale gorrira bidali bezperan badirudi laguntza eske aritu zela. Baina isilik pasa du egoera hau. Laguntza eskatu gabe, eta ondorioz, laguntza jaso ezinik. Askotan ez dugu ondokoa bizitzen ari denaren berririk izaten. Zerbait gertatu arte. Hemen dik gertu, ba al dugu halako egoeraren bat bizitzen ari denik?

Imanol Ubeda | **Aritz Gorriti** | Maialen Unanue | Luis Aranalde | Ugaitz Agirre | Nerea Zinkunegi | Joxe Piñas | Idoia Torregerai | Unai Agirre

Abenduaren 6a, "Herria Garbi" eguna

Abenduaren 6a Espainiak konstituzioaren eguna da. Laz, egun hau lanean pasatzea erabaki zuten hainbat herritarrek: "auzolanean, Usurbilgo ibai ertzak garbitzen izan ginen 80 usurbildar inguru. Goizean frontoian elkartu, Zumartegi industrialde inguruko ibai ertza garbitzen goiza pasa, jasotakoa frontoira eraman eta bertan hamaiketako bikain batekin amaitu genuen, guztia lagunarteko giro ederrean".

Aurten ere egun bera aprobetxa-

tuz, Herria Garbi bigarren eguna antolatu dute Itaya, Usurbil Zero Zabor, Andatza Mendi Elkartea eta Usurbilgo Udalak elkarlanean. "Aurtengoan herriko bide bazterrak garbitzea da asmoa, izan ere bide dezente dira plastikoz, botilaz eta mota guztitako zaborrez beteak daudenak. Beraz, abenduaren 6an hitzordua dugu usurbildar guztiok eskularru batzuekin goizean frontoira azaldu eta auzolanean herria garbitzeko", adierazi dute prentsa-ohar bidez.



Iazko edizioan jasotako hondakinak ugariak izan ziren.

Javier Orbegozo
 ·ITURGINTZA
 ·GASA ·BEROKUNTZA
 659 602 789
 943 37 29 37
 Erreka-ixiki 13, 3. esk USURBIL

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

Josue
Igeltseritza
 606 37 21 05
 Atallu pol.28 USURBIL

EROSKI/city
 kale Nagusia 10, USURBIL
 943 361182

Munalurrarako sarbidea hobetzea eskatu du PSE-EEK



Auzuneko kaleetako baten noranzkoa aldatzea eskatzen dute.

Munalurrarako sartu irteerak hobetzeko eskaera aurkeztu du udaletxean, Usurbilgo PSE-EEK. Egungo irisgarritasuna hobetu beharra dagoela uste dute, eta horregatik egin diote aipatu proposamena gobernu taldeari. Gogorazten dutenez, Munalurrak hiru irteera ditu, baina sarbide bakarra. Horregatik, besteak beste, "kale baten noranzkoa" aldatzea nahi dute.

Neurriokin, PSE-EEren ustez, "Munalurrarako dabilzan ibilgailuen sartu irteerak hobetu eta sarbide zuzena izango lukete, auzunera itzultzeko Usurbilgo erdigunera joan beharrik izan gabe", adierazi dute prentsa ohar bidez.

"HAU DA LAN EGITEKO UNEA, LARRIAGOA IZANGO DA GERO"

Neurriok hartzea ezinbestekotzat jotzen du Usurbilgo sozialisten bozeramaile Ricardo Crespok, euren ustez, Munalurrarako segurtasuna eta sartu irteerak hobetzea ekarriko dutelako.

Munalurra auzoaren sarbidearekin sortu den arazo hau orain konpondu behar dela diote. "Hau da lan egiteko unea, egoera larriagoa izango baita, Agerreazpiko lanak bukatu eta familia gehiago bizitzera etorri osten", ohartarazi du Ricardo Crespok, alderdi sozialistako zinegotziak. Bere esanetan, hobekuntza proposamenok, auzoko bizilagunen hamarnaka sinadurek eskatuta-koari erantzuten diote.

2013ko udal aurrekontuen gaia lantzeko bilera irekiak

Kalezarren eta Zubietan hasi du Usurbilgo Udalak, datorren urteko udal aurrekontuen gaia herritarrekin batera lantzeko deitu duen bilera erronda. Orain artekoak bezala, egunotan burutuko diren beste lau hitzorduak ere irekiak izango dira. Udaletik, azaroaren 22ra arte, Txokoalden, Aginagan, Santuenean eta Kaxkoan burutuko diren bilera hauetan parte hartzea deitzen zaie herritarrei:

Azaroak 15, osteguna

19:00 Txokoaldeko Erroizpe elkarte.

Azaroak 19, astelehena

19:00 Aginagako ludotekan.

Azaroak 20, asteartea

19:00 Santueneako Auzo Elkarte.

Azaroak 22, osteguna

19:00 Kaxkoan, Potxoenean.



Azaroaren 22an egingo da Kaxkoko herritarrentzat bilera, Potxoenean.

Ika-Mika

Aulki berezi bakoitzak 3.500 euro balio ditu

Badira zazpi urte pasa hainbat frogatxo egiten hasi ginela. Orditik asko aurreratu dugu. Bi pilotari eta entrenatzaile bat hasi ginen eta hara, konturatzerako ia hamar pilotari eta hiru entrenatzaile dituen taldea osatzera iritsi gara. Euskal Pilotako gomazko paletan jokatzeko dugu, gurpil aulkian hain zuzen. Usurbilgo Pagazpe elkarte pilotariak gara, nahiz eta Gipuzkoako hainbat txokotan bizi.

Gomazko paletako joko arauak gurpil aulkian jokatzeko egokitu genituen lehenik eta behin, denboraldi osoko entrenamendu sistematizatua finkatu ondoren eta ia zok denboraldian, Gipuzkoako gomazko paletako lehenengo txapelketan parte hartu genuen. Kirol Egokituen Gipuzkoako Federazioak eta Euskal Pilotako Gipuzkoako Federazioak laguntza eskerga eskaini digute ibilbide honetan. Kirol joko tradizional honetaz

gozatzeko, gure urritasun fisikoa dela medio, ezinbestekoa da pilotari jarduteko egokiak diren gurpil aulkiez baliatzea. Aulki berezi hauetako bakoitzak 3.500 euro inguruko balioa du eta gurea bezalako elkarte txiki batek ezin dio neurri honetako gastuei aurre egin.

Azaroaren 17an, Usurbilgo pilotari taldean, arratsaldeko 18:00an hasita gurpil aulkia erosi ahal izateko jaialdi benefikoa antolatu

dugu. Sarrera 5 eurokoa izango da eta lau desfioez gozatu ahal izango da.

Anima zaitzete guztiok jaialdi honekin gozatzera! Ezetz asmatu partiden amaierako emaitza!? Sari bikainak zozketatuko dira apustuak asmatzen dituztenen artean.

Usurbilgo gurpildun aulkiko pilotariak

Sortu eratzeko “batzarrak po

“Zutik Euskal Herria ebazpenaren adierazpen politiko zehatza izango da Sortu”

Otsailaren amaieran egingo da Sortu alderdi politikoa eratzeko kongresua. Hori baino lehen, hainbat batzar egingo dira herriz herri. Lehena, azaroaren 24an.

Legez kanpo utzi dute urte luzez Ezker Abertzalea. Eratze prozesu hau abiatzeko aukera izatea, bere horretan, albiste ona izango da Ezker Abertzaleko kide eta jarraitzaileentzat, ezta?

Sortu Usurbil. Oso albiste ona da guretzat, legez kanporatzeak ezaugarritutako jazarpen fase luze bat amaitzen ari garela esan nahi duelako, eta ezker abertzaleak ere, aukera berdintasunetik eta bere marka politiko propioarekin, politikan aritzeko aukera izango duelako, gainerako indar politikoekin batera.

Aurore Martin ezker abertzaleko kidea extraditatu eta kartzeleratu berri dute. Ez dirudi garai berriekin bat datozen neurria denik, ezta?

Aurore Martinen atxiloketak, extradizioak eta espetxeratzeak argiki erakusten du oraindik ilegalizazio politika horren ondorioak guztiz itxi gabe daudela, eta, ondorioz, ez dugula lehen aipatutako jazarpen fase hori guztiz itxi. Gainera, ezin ahaztu oraindik ere ehunka euskal herritarrek euren esku-



Azaroaren 24an larunbata ekingo diote eztabaidari. Arratsaldeko 16:00etan Potxoenean.

bide zibil eta politiko oinarrizkoenak urrututa dituztela, politika egiteagatik epaiketaren zain baitaude. Egoera horretan dago, esaterako, Marisa Alejandro usurbildarra, behin-behineko askatasunean, 50.000 euroko bermea ordainduta, asetero epaitegitara sinatzera joateko derrigortasunarekin, Espainiatik ateratzeko debekua erekin, eta, okerragoa dena, 10 urteko espetxe zigorra eskatzen dute haren aurka. Ondorioz, unea iritsi da, salbuespeneko neurri horiek guztiak bertan behera utzi, eta garai berri hauek eskatzen duten norabidean urratsak ematen has-teko Frantzia eta Espainiako

governuak. Halaxe egiteko eskatzen dio euskal gizarteak, horren erakusgarri da larunbatean Baionan egindako manifestazio erraldoia edota Aurore Martinen atxiloketaren salaketak utzitako argazkiak: Ipar Euskal Herriko alderdi politiko guztiek, UMP eta PSF barne, egin zioten deia Frantziako gobernuari bide hori bazterrean uzteko, eta bakearen norabidean urratsak ematen hasteko.

INDEPENDENTISTEN ETA EZKERTIARREN BILGUNE
Sortu alderdi politikoa eratzeko barne-eztabaidari ekingo zaio laster. Zeintzuk dira prozesu honen helburuak?

Euskal Herri osoko ezkertiar eta independentisten bilgune politiko berria izan nahi du Sortuk. Euskal Herri askearen alde lanean eta borrokan diharduten independentista eta sozialisten Herritar Batasun historikoaren adierazpen politiko berria, hain zuzen ere.

Antolakuntzaren ikuspegitik, Sortu Zutik Euskal Herria ebazpenaren adierazpen politiko zehatza izango da, edo beste modu batera esanda, Zutik Euskal Herria ekarri zuten eztabaida estrategikoan egindako eguneratzea jasotzen duen antolakundea izango da Sortu.

URDAINTZI
eraikuntzak
649 43 54 75 / 76
943 36 72 64
eraikuntzak@euskalnet.net
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

Zuen
publizitatea
hemen
943 360 321
publizitatea@noa.com

izagirre
ELEKTRIZITATEA
943 36 50 95-609 06 81 11
izagirrelektrizitatea@hotmail.com
Goiz argi etxea 37, KALEZAR

Errazkin S.L.
igeltseritza orokorra
943 24 01 76 eta
649 435 470
errazkinsl@euskalnet.net
Oztaran auzoa 33, URNIETA

“parte-hartzaileak izango dira”

2013ko otsailean egingo den kongresuan amaituko da lau hilabeteko prozesu hau. Zein izango da metodologia? Bestela esanda, otsaileko kongresua bitarte, nola garatuko da laster abiatuko den prozesua?

Sortu eratze prozesua orain hasiko bada ere, berez, udaberriaren ekin zitzaien prozesuari. 300 bat lagunek parte hartu dute prozesuaren lehen fase honetan, eskualdeka eratuakolan taldeetan. Kontraste prozesu bat izan da, ideia nagusien inguruan. Jasoriko ekarpen eta emendakin guztiekin osatu dira eratze prozesurako erabiliko

diren ponentziak. Eta esan bezala, orain abiatuko da eratze prozesua bere horretan. Herriz herri egingo dira eztabaidak eta bozketak. Euskal Herri osoan emango da eztabaida.

ZEHATZU DIREN LAU BATZARRAK

Kongresua bitarte, lau batzar egingo dira:

Azaroaren 24: Oinarri Ideologikoen inguruko eztabaida.

Abenduaren 15: Ildo Politikoa- ren ingurukoa.

Urtarrilaren 26: Antolaketa eredia eta funtzionamendua.

Otsailaren 9: Barne hauteskundeak.

Otsailaren 23: Sorturen Kongresua.

“Egutegi hau pasata eta dagokion eztabaidak eginda, orduan hasiko da Sortu ehuneko ehunean oinez ibiltzen. Batzarrek parte-hartzaileak izango dira guztiz. Metodologia berria erabiliko da batzarretan, ahalik eta parte-hartzaileenak izateko helburuarekin. Oinarri ideologikoak eta antolakuntza eredia biltzen dituen dokumentua orain ari gara banatzen”, adierazi digute Sortuko kideek. “Ildo politikoa eta Komunikazioa biltzen dituen, datozen asteotan iritsiko da herri guztietara”, gaineratu.

Lehentasuna, EH Bildu koalizioa

Sortu alderdi politiko bezala eratzten denean, zer nola-ko eragina izango du EH Bildu koalizioaren baitan?

Sortu Usurbil. Ezker abertzaleak argi du indar metaketaren bidez eta aliantzetan sakonduz egin behar dugula independentziarako bidea, eta horretan EH Bilduk asko du emateko eta ekarpen handiak ditu emateko oraindik, bai ekarpen estrategikoak bai elektoralak, eta, ondorioz, Sortuk lehentasunezko zat du EH Bildu koalizioa, eremu guztietarako.

“Usurbilen, azaroaren 24an ekingo diogu eztabaidari”

Usurbil mailan, nola antolatu-ko da prozesu edo eztabaida hau?

Sortu. Usurbilen azaroaren 24an ekingo diogu eztabaidari. Orduan egingo dugu oinarri ideologikoari dagokion batzarra, 16:00etan Potxoenean. Lehen eztabaidan honen helburua sortu nahi den indar politiko independentista eta sozialista berriaren perfil politikoi- ideologikoa zehaztea izango da. Horrela bada, Sortu-ren eztabaidan parte hartuko duten pertsona guztien artean indar politiko berriak, besteak beste, independentzia, sozialismoa, euskara, ekologismoa, feminismoa, internazionalismoa, aniztasuna... nola uler-

tzen duten finkatu beharko da. Lan hori bideratzeko, txostenean egingo den proposamenari hobekuntzak edota ekarpen alternatiboak egiteko aukera izango dute batzar irekietan parte-hartzen duten lagunek.

Ekarpen horiek batzarretan bertan sakondu eta bozkatuko dira, onartuak izatekotan, datorren otsailaren 23an burutuko den I. Kongresuan onartuko den behin betiko ponentzian jasoak izan daitezten.

Jende guztiaren parte-hartzea bultzatu nahian, metodologia berritzailea erabiliko dugu. Eskuz esku ari gara lehen ponentzia banatzen. Oraindik eskuratu ez

duenak www.usurbileginez.com webgunean du eskuragarri, edota Sorturen webgunean. Gainerako batzarrek aurrez aipatutako egunetan egingo dira.

Zer nolako garrantzia izango dute usurbildarrek eratze prozesu honetan?


Bere burua ezkertiar eta independentistatzat duenak eta Zutik EH ebazpenaren edukia bere egiten dituen edonork du, lehenago ezker abertzaleko kidea izan ala ez, Sortu-ren eratze prozesuan parte hartzeko aukera. Eta horixe da elkar- ritzeta honetatik egin nahi dugun gonbita: bere burua ezkertiar eta independentistatzat duten usurbildar horiei, Euskal Herrian independentzia eta sozialismoa erai- ki nahi duten gizon eta emakume orori, gazte zein helduei, Sortu prozesuan parte hartzeko deia luza- tu nahi diegu.

Usurbildarrek izango duten garrantziaz galdetzen duzu. Edozeinek du edukia bere ekarpenak egiteko aukera, testu alternatiboak aurkeztearena, eta, bestetik, guztion artean erabaki beharko dugu Sortu Usurbilen nola eratu- tuko den, nortzuk osatuko duten Sortuko egitura politikoa, eta nortzuk izango diren Sorturen nazio batzarrean Usurbilen ordezkariak, boto eskubidea izango dutenak hain zuzen ere.

www.noaia.com
USURBILGO ATARIA

 **Kima**
MASAJE LEKUA
· KIROL MASAJEA · MASAJE TERAPEUTIKOA
· KOLONAREN HIDROTERAPIA
Nagusia 44, behea LASARTE-ORIA 943 36 61 97

359 langabetu urrian Usurbilen, azken urteotako kopuru altuena



Azken zazpi urteotan, ia bikoiztu egin da langabezia tasa Usurbilen.

Azken urteotako marka guztiak hautsi ditu Usurbilgo langabezia tasak. Espainiako Gobernu Lan Ministerioaren arabera, Usurbilen 359 langabetu zeuden urrian. Irailean baino 20 langabe gehiago, orduan 339 langabetu zenbatu baitziren.

Beste behin, zerbitzuen sektoreak biltzen du langabetu kopuru handiena, 359tik 221 hain zuzen. Sexuaren arabera, alde handirik ez gizon eta emakumeen arteko langabezia tasetan, nahiz, emakume langabetu gehiago egoten jarraitu. Adinari dagokionez, 25-44 urte artean dago lanik gabeko herritar kopuru altuena; 194 langabetu guztira:

SEXU ETA ADINAREN ARABERA

■ Gizonezkoak:

25-44: 103.
> = 45: 53.

Guztira: 177.

■ Emakumezkoak:

25-44: 91.
> = 45: 78.

Guztira: 182.

SEKTOREAREN ARABERA

- Nekazaritza: 3.
- Industria: 72.
- Eraikuntza: 43.
- Zerbitzuak: 221.
- Aurreko lanik gabe: 20.

IAZKO URRIAN, 294 LANGABETU

Kaleratu berri diren datuok duela urtebetekoekin alderatuz gero, Usurbilen 294 langabetu zeuden 2011ko urrian. Azken hilabete eta urteotan langabeziak Usurbilen izan duen bilakaera, Usurbilgo Udalaren goiko grafikoan ikus dezakezue. Urriko datuak, azken urteotako okerrenak dira.

GIPUZKOAN IGOERA HANDIENA

219.071 herritar lanik gabe zeuden urrian, Hego Euskal Herri osoan. Horietatik, 47.235 Gipuzkoan. Espainiako Lan Ministerioak kaleratutako datuen arabera, herrialde honetan igo da langabezia tasa gehien. Irailetik urrira, %2,73. 1.255 langabetu gehiago joan den hilean.

Gabonetako otarreak, Xiberoko ikastolen alde

Xiberoako ikastolarekin bat egin du, beste behin ere, Nafartarrak taldeak. Beste urte batzuetan bezala, Zuberoako produktuekin osatutako otarreak ipini dituzte salgai. Eguberrietako otarre hauek eskuratu nahi dituzten herritarrek, izena eman behar dute Txiribogan edota Bordatxon ipini dituzten zerrendetan. NOAUA!ko egoitzara deituta ere egin daiteke otarre hauen enkargua (943 360 321 telefono zenbakira deituz, hain zuzen). Zuberoako produktuak dituzten honako bi otarre daude aukeran:

AHUSKI OTARREA

- Prezioa: 37 euro.
- Produktuak: ardi gazta (1 kg), ezitia (500 gr), ahate gibelarekin eginiko pateia (200 gr), bizkotxo poltsa bat "artisanala" (200 gr).

IRATI OTARREA

- Prezioa: 50 euro.
- Produktuak: ardi gazta (1 kg), ahate gibelarekin eginiko pateia (200 gr), bizkotxo poltsa bat "artisanala" (200 gr) eta axoa txahalki xehatua saltsan (750 gr).

Errausketaren Aurkako Eguna, azaroaren 24an

Goizean, mahai ingurua egingo da Potxoenean. Eta eguerdian, bertso-bazkaria Gaztetxean: Beñat Gaztelumendi, Alaia Martin, Aitzol Barandiaran eta Arkaitz Oiarzabal "Xamoa". **Sarrerak** 12 eurotan **salgai, Aitzagan eta Irratin**, azaroaren 22ra arte.

18:00 Kantu poteo aldarrikatzailea Kantu Taldearekin bat.

20:00 Anari Gaztetxean (5 euro).

23:00 Kontzertuak Gaztetxean: Despericio, Stupenda Jones, Gaueko Itzalak...

JOSETXO IKATZETA
Iturgintza
TEL: 943 36 20 26
687 95 12 25

Otar-Goxo
Elkargaiak
Zubiaurrenea, nº2
☎ 943 36 55 81
20170 Usurbil

JE JON ELORZA
IGELTSEKORRA
OROKORRA
Obrak eta erreformak
661 804 688
San Esteban 5, baxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com

Bigarren faseari begira dago jada Hezkuntzako parte hartze prozesua

Etorkizuneko Usurbilgo hezkuntza eredu bate-ratua adosteko Udalak antolatu duen parte hartze prozesuko lehen fasea, egungo egoeraren diagnosiari zegokiona, amaitu da. Lehen etapa honetan egin den lanke-taren eta herritarren esku har-tzearekin baikor agertu den ki-deetako bat, bideratzaile lanak burutzen ari den Nicola Foroni dugu, parte hartze prozesuetan aditua.

Zer eman dute lehen bi bilerak hauek?

Nicola Foroni. Hala da, diagnosi fasea amaitu dugu eta egindako aurrepausoekin oso pozik gaude. Batetik, egindako lanagatik: prozesua eta lan markoa ezagutu ditugu, Usurbilgo 0-16 urte arteko hezkuntza aztertu dugu; Haur Eskola, Zubietako eta Aginagako eskola txikien eta Udarregi Ikastolaren egungo egoerak. Diagnostika aspektu desberdinetan egituratu dugu: parte-hartzea eta erabaki ahalmena; ikastetxeak eta herria; ikasleak - gurasoak - irakasleak; Udalaren rola; hezkuntza proiektua; alderdi ekonomikoa; zerbitzuak. Aspektu hauetako batzuetarako, guraso, eskola eta Udalak

emandako informazioa banatu da. Jende asko gerturatu, parte hartze oso aktiboa izan, egungo egoeraren benetako azterketa egin eta kontuan hartu diren aspektu guztietan kalitateko ekarpenak egin izanak pozten gaitu.

Zer giro sumatu duzue bileretan?

Giro polita sortu da. Hasieran, naturala den moduan, jendea pixka bat prozesua hobeto ulertu, eta nortzuk eta nola parte hartuko zuten ezagutu zain zeuden. Behin prozesua ezagututa, oso azkar abiatu zen. Gaian gogotsu murgildu ginen eta jendea askatasun osoz eta kalitate handiz parte hartzen ari da. Argi dago, gai honekiko interes handia izan eta egoera aztertu eta bideak aurkitzeko gogo handia dagoela Usurbilen.

Zein da bilgune honen egitekoa?

Hezkuntzarekin lotura izan eta Usurbilgo subjektu guztiak bere barne hartuko dituen definizio prozesu bat planteatzeko ari gara. Horrek eragile asko inplikatzeko ditu, eta herritarrek modu zuzen batean. Lan egiteko modua integratua



Nicola Foroni, artxiboko irudi batean.

NICOLA FORONI
“Taldea gisa lan asko egiten ari gara, ekarpen oso aberasgarriekin. Pauso asko ematen ari gara, eta gustura gaude”

da. Alde batetik, erakundeetako ordezkari bat dago (eskolak, Udala, alderdi politikoak), herritar eta adituekin batera. Beste aldetik, bilera orokorrak daude. Bertan guztiak daude, eta herritarrek presentzia askoz handiagoa dute. Talde eragileak egiten duen lana honakoa da: prozesuaren jarraipena egitea; aurrerapausoak, beharrak eta zailtasunak ikustea, eta aldi berean, azterketa on batekin prozesuan aurrera egin ahal izateko beha-

rrerko informazioa eta lan egiteko moduak planteatzea.

Nolakoa da parte hartze prozesu honen metodologia?

Egoera bat bizi eta ezagutzen duen jendeak, aukera onenak, konponbide errealean planteatzea ditzakeela sinisten duen enfoke oso parte hartzailea du prozesu honek. Aldi berean, pertsona guztiek parte hartzean eta eraikuntzaren parte izatean datza. “Hitz egiten dutenak eta entzutenak dutenak” ez egotea ahalbidetzen duena. Horregatik, horizontaltasun gehiago dago, eta parte hartzaile bakoitzaren deshinibizioa ahalbidetzen duten teknikak lantzen dira. Ikusgarritasunean eta eraikuntza progresiboetan indar egiten da.

Aukera ezberdinen lanketa, datozen bileretan

Bileren ordua: 18:30.

Bilera lekua: Potxoenea.

Bileren iraupena: 2 ordu.

Bileren egituraketa:

Identifikatutako interes edo beharrei irtenbidea aurkitzeko aukera ezberdinen lanketa: 3 bilera (azaroak 21, abenduak 5, abenduak 19).

Erabakitakoa martxan jartzeko eman beharreko pausoak zehaztu eta landu: 2 bilera (urtarrilak 23 / otsailak 6).

“Prozesu honetatik gauza oso interesgarriak aterako dira”

Hezkuntzari lotuta, abiatu den prozesua bera aitzindaria da ezta inguruotan?

Nicola Foroni. Prozesua hezkuntzari buruzko hausnarketa egiteko abiatu da. Eta hausnarketa hau eredu ginetik dauden jardunbideei buruzko hausnarketa izango da. Prozesu berri bat da, gertuko erreferentzia askorik ez duena, eta honek, prozesua bera oso exigentea izatea dakar. Bertan inplikatuak

dauden Udalarri eta gainerako eragileei ere asko exigitzea ekartzen du noski. Exigentzia hau, diseinu orokorrean, bileren prestaketan, parte hartze motan eta prozesuaren iraupenean (2013ko martxora arte) islatzen da. Baina garrantzitsua da ulertzea, ez duela bakarrik arduratsuak izan eta hausnarketak informazio egoki batean oinarritzea suposatzen, prozesu mota honen zerbait berria bilatzeko denoi

irekitasuna eta malgutasuna izatea exigitzen digu. Prozesu hau Usurbilen burutzeak pozten nau, lehen-dik ere halakorik egina baita. Birziklapenean abanguardian egon da, Euskal Herrian Atez Ateko Bilketa jartzen aitzindaria izan da, eta bere eragina erabakigarria izan da, Gipuzkoa mailan ematen ari den bilketa sistemaren aldaketan. Prozesu honetatik gauza oso interesgarriak aterako direla ziur nago.

Pilota jaialdia, gurpildun aulkian

Beñat Lizasok eman dizkigu larunbat honetako jaialdiaren xehetasunak

Larunbat arratsaldean, frontoi ingurura gerturaten denak sarbideak itxita aurkituko ditu. Pilotalekuan, gurpildun aulkian gomazko paletan aritzen diren (tardean bi usurbildar) kirolarien aldeko jaialdi benefikoa antolatu baitute. Kirol jarduera honetan parte hartzen dutenentzako, beharrezkoak dituzten gurpildun aulki gehiago erosteko laguntza jasotzea da ekimenaren helburua. Bide batez, euren jarduera ezagutzeko aukera izango da. Aurpegi ezagunak ere bertan izango dira; Mikel eta Fernando Goñi pilotariak. Eta haiekin, gurpildun aulkian lehian Beñat Lizaso usurbildarra. Berak dakartza ekimen honen inguruko xehetasun gehiago.

Nondik dator jaialdi hau antolatzekeo ideia?

Beñat Lizaso. Urriaren 11n Zubietan ospatu zen jaialdian, gure taldekoekin batera, Mikel Goñik eta Fernando Goñik jokatu zuten. Jende asko etorri zen. Zubietako jaialdian entrenatzaileari bururatu zitzaion Goñiri diru laguntza edo zerbait eskatzea. Azkar hasi ziren



“Aulki bereziak dira, biratzeko azkarrak. Guri askatasuna emango digute”, adierazi digu Beñat Lizasok.

antolakuntza lanak. Hortik, Pagazpe elkarteak hitzordua jarri du larunbaterako; txapelketa benefikoa ospatuko da, 18:00etatik aurrera frontoian.

Jaialdiaren helburua, aulki berriak erosteko laguntza jasotzea da? Bereziak dira ordea?

Bi kiderekin hasi ginen duela zazpi urte, baina egun hamai-ka kirolari gara. Baina bi edo hiru aulki falta zaizkigu. Ho-

rregatik, txandatzen aritzen gara palan. Hilean behin, kide bat parte hartu gabe geratzen da, beste bati lekua uzteko. Jarduera honek kirola egin eta gure artean terapia egiteko aukera ematen digu. Plazer bat da. Baina aulkiak falta zaizkigu. Egokituak izan behar dute. Txapelketarako aulki bereziak dira, saskibaloian erabiltzen dituzten berdinak. Baina haiek paraxokeekin erabiltzen dituzte, guk gabe. Aulki bereziak

dira, biratzeko azkarrak. Guri askatasuna ematen digute.

Aulkiak garestiak dira noski?

Garestiak dira, bereziak izanda are gehiago. Laguntza gutxi ematen dituzte. Duela hiru urte lau aulki lortu zituzten. Baina aulkiak ez daude denentzat, eta gure artean ekimen hau antolatu dugu laguntza jasotzeko. Jendeari aukera gehiago emateko, kirol jarduera hau gehiago zabaltzeko.

Zuen jarduera ezagutzera emateko aukera izango duzue larunbat honetan. Baina lehendik festetan ere ikusi izan zaizue?

Aginagan, Usurbilen, Zarautzen urtero izaten ditugu txapelketak. Festa desberdinetan parte hartzeko aukera izatea nahiko genuke. Guri ere ikusteak. Herri guztietan dago jendea aulkian. Haiek kirola egitera bultzatzea nahiko genuke, ze geldirik egoten den pertsona galdu egiten da.

Gero eta handiagoa da taldea

Zuen taldea ere handitzen ari da azkenaldian, ezta?

Beñat Lizaso. Leku desberdinetako kideak ditugu; Lekunberri, Soraluze, Bidegoian, Antigua edota Alegikoa. Bizkaia aldera zabaldu nahi genuke taldea. Araba eta Nafarroara baita. Hartara, denen arteko txapelketa egiteko aukera egingo litzateke, saskibaloia edota

tenisean egiten duten moduan. Orio eta Zarautz edota Donostialdean ibiltzen gara, hortik kanpo gutxi. Polita izango zen, beste leku gehiagotara zabaltzen joatea.

Jaialdiari begira, aurpegi ezagunaren aldetik jaso duzuen babesa eskertzekoa da ezta?

Pilotariak etortzea asko eskertzen

da. Jendea haiengatik etorriko da, gugatik ere bai. Baina gehienbat euren saltsa ikustera. Beraiek lagundu digute sariak lortzen.

Eskerrak eman nahi genizkioke, Imanol Agirretxeri, Andoni Iraolari, Arruti harategiari, Bruñori, baita Aspe eta Asegarce enpresei ere. Ia jendea animatzen den jaialdira.

Aulki berriak erosi ahal izateko



Gomazko paletarekin jokatu dira larunbateko jaialdiko partida batzuk.

Denbora daramazue entrenatzen Zubietan?

Beñat Lizaso. Zubietan jolasen dugu, bi orduko saioak egiten ditugu. Lehengo urteetan asteartean aritu gara saioak egiten. Baina aurten jada ostegunera pasa ditugu saioak, biltzeko aukera gehiago genuelako. Leku polita, denentzako ere gertu samar geratzen da. Joan den astean, Behobian parte hartu behar zuen Valladolideko lagun bat etorri zitzaigun, palako entrenamenduan gurekin aritu zen. Inoiz ez zuela ikusi eta gustura aritu zen. Saskibaloiaren jokatzeko du.

Beste kirol jarduerak oraindik indar gehiago dute ezta?

Saskibaloi, tenisa, padela edota eskubaloia ere sartu dute. Arku tiroan, zaldi gainean ibiltzen dira batzuk, trinketa ere probatu dugu. Jarduera asko daude. Geroz eta parte hartze handiagoa dago.

Beste kirol jardueraren bat probatzeko asmorik baduzu?

Bizikletarekin ibili izan naiz. Arku tiroa probatu nahi nuke. Gero ere tapoiak jasotzen ari naiz. Eskerrak eman behar dizkiet usurbildarrei eta inguruetakoei, jasotako tapoiengatik, korrika egiteko hanka bat erosteko baitira.

Nolatan hasi zinen tapoiak jasotzen?

Duela hiru urte jakin nuen, neska gazte bat aulki bat erosteko tapoiak biltzen ari zen. Hankarekin korrika egiten duten lagunak ditut. Bizikletan ibiltzera etortzen dira. Zubietako buelta egin eta gero, korrika ibiltzeko hanka jarri eta lasterka aritzen dira. Probatu nahi nuela jabetu nintzen. Korrika egiteko kapritxoak nuen, baina dirurik ez. Tapoiak garajeetan jasotzen hasi nintzen, azkenean leku handiago bat behar izan dut. Eskerrak eman laguntzen ari

zireten guztioi. Arazoa dut ordea, bizikletatik erori nintzela, femurra apurtu nuen anputatutako hankan.

Korrika egitea agian ez dut lortuko, baina bizpahiru urte pasako ditut tapoiak jasotzen. Korrika egiterik izango ez banu, palan parte hartzeko aulki bat erosteko nuke. Baina neure ilusioa korrika egitea da. Pixkanaka lortuko dugula uste dut.

“MUGARIK EZ DAGO EZERTARAKO”

Aulkian dagoenari, kirola egitera animatzeko zer esan?

Animatzeko. Jendeari animatu, duen lesioa izanda ere, gauzak probatzera. Probatzeko, ze azkenean lotu eta gorputzak eskatzen dizu. 16 urte eta erdi egon naiz ezer egin gabe. Gustura aritzen gara. Mugarik ez dago ezertarako, norberak jartzen ditu bere mugak.

Errifak, sarrerak eta apustuak, laguntza jasotzeko

Taldea laguntzeko bide desberdinak daude. Larunbateko jaialdirako sarrerak 5 eurotan erosiz adibidez. Baina errifakeresaltzen ari dira, 2 eurotan. Errifa zozketako irabazleak sari potoloak jasoko ditu; bina sarrera, Athletic eta Realaren neurketa bana ikusteko, txuleta bat eta mariskada eder batez gain. Gainera, jaialdiko partidetan, euro batean apustuak egin eta lau t'erdiko pilota txapelketako neurketak ikusteko sarrerak irabazi ahal izango dira.

Larunbatean Usurbilgo frontoian

- **Ordua:** 18:00etan, frontoian.
- **Sarrera:** 5 euro.
- **Antolatzailea:** Pagazpe elkarte.

■ Neurketak:

1. [Gomazko paleta gurpil aulkian](#) Iñaki (Donostia)-Aingeru (Bidegoian) Hilario (Alegia)-Patxi (Lasarte)
2. [Gomazko paleta gurpil aulkian](#) Edurne (Soraluze)-Edorta (Lekunberri) Patxi (Lasarte)-Beñat (Usurbil)
